

...eta

Kitto!

938 zkia.
2015-VII-10

Hain gertu, **GEO. PARKEA** hain ikusgarri



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamentua.



+ OSASZUN GODA

Dentistak



Arat
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta
kolektibo handiekin
itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hartz-kliniketara
etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hartz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com



hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**HEMEN ZURE
TOKIA izan
nahi baduzu ...
... deitu
943-206776
telefono
zenbakira**

ASTEAN ESANAK

"Min kronikoak arintzeko esperimentu batek agerian utzi du desberdina dela minaren mekanismoa sagu arretan eta emeetan, eta sagu arretan eraginkorra den tratamenduak ez duela eraginik emeetan. Esperimentuak agerian utzi du ezinbestekoa dela bi sexutako animaliak erabiltzea esperimentuetan. Orain arte, askok arrak baino ez dituzte erabiltzen, hilekoaren zikloak eragiten dituen gorabeherak saihesteko aitzakiarekin"

(ANA GALARRAGA,
ELHUYAR-ERKO ZIENTZIALARIA)

"Ikuspuntua heterosexuala da beti. Sexu berekoen ezkontzaren kontu horretan, nekagarria izateaz gain, sustatu egiten da soilik gizonak eta emakumeak daudelako ideia, familiarren ideia, ugaldur behar dugulako kontua. Balio horiek guztiak ukitu ere ez dira egiten. Horrek ez du eragiten homofobia, lesbofobia edo transfobia desagertu dadin"

(JAVIER SAEZ DEL ALAMO,
SOZIOLOGOA)

"Euskal Herrian jatorra izatea nahiko berezia da. Ostalaritzan, esaterako, jatorra izateko, taberna bateko terrazan esertzen zarenean, zerbitzera inor etorrriko ez denez, zu jaiki beharko zara eta barran eskatu, ondoren kontsumizioak mahaira eramateko eta, hori bai, amaitzen duzunean berriro barrara eraman eta han kontua eskatzeko, jakina, 'ahal duzunean'. Halakoak gara hemen, ez gabatxo harropuz horiek modukoak, euren erdipurdiko fraternitatearekin"

(IÑAKI BERRIO,
ZUTABEGILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KONORTA.- Zentzuna, kordea. Gaztelerazko 'conocimiento'. "Konorta dauka ondiok".

KONORTA ETORRI.- Zentzuna berreskuratu. Gaztelerazko 'volver en sí'. "Erremona Martari, patxar apur bategaz etortzen jakon konorta".

KONORTA GALDU.- Konortegabetu, zorabiatu. Gaztelerazko 'desmayarse'. "Hartu eban koskorrekuakin, konorta galdu eta luze-luze jausi zan".

KONORTA KENDU.- Kordea, zentzuna kendu. Gaztelerazko 'anestesiari'. "Konorta kendu detse iztarra ebateko".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Datorren barixakuan, hilaren 17an, kaleratuko dugu ikasturteko azken alea. Kontutan hartu, beraz, zorion-agurrak eta bestelako informazioa kaleratu nahi baduzue.



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTARILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Maider Gogorza

BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Jarriozue lelua erosketeri euskeraz

Dendariak Berbetan egitasmuaren baruan, erosketetan be euskeria erabiltzera animatu gura dittugu herritarrek. Aurkituko dogu lelo egokixa danon artian? Datorren asteko aldizkarixan zure lelua idazteko aukeria izango dozu. Kupoitxuan bertan, lelua, izen-abizenak eta telefonua agindu eta uztaillaren 22, 23 eta 24an Factoring edo udako merkealdi berezixen azokan egongo dan **Dendariak Berbetan**eko mahaira eruan.

Parte hartziagattik bakarrik Dendariak Berbetan poltsa eruango dozu etxera eta, gaiñera, 100 €-ko erosketa-txarteleko zoz-

ketan be parte hartuko dozu. Dendariak eta Ostalariak Berbetaneko Batzordea izango da epaimahai, eta 10 lelorik politenak aukeratuko dittu. Aukeratutako 10en artian, urrian, Facebook bidez herri-tarrek bozkatu ahal izango dogu zein dan gehixen gustatzen jakuna. Herritarrok aukeratutako lelua izango da Dendariak Berbetanen gabonetako kanpaina erabilliko doguna. Animatu eta parte hartu!

Kupoitxua beteta entregatzerakuan, poltsa jaso ahal izango da hillaen 22xan eta 23an (11.00-13.00 eta 18.00-20.00) eta 24an (11.00-13.00). Azken egun horretan, 24an,



zozketia egingo da 13.15etan parte-hartzaillien artian. Ekimenerako 2.000 poltsa prestatu dira.

Esperientzia Eskolarako matrikulaziñua zabalik

Debarreneneko Esperientzia Eskoliak zabalik dauka datorren ikasturterako matrikulaziñua. 50 urtetik gorako edozeiñendako atiak zabalik dittuan eskolan izena emoteko ez dabe eskatzen aurretik ikasketa edo titulaziñorik izatia eta, arduradunak azpimarratzen dabenez, "eskoliak toki irekixa eta alkartrukerako gunia izan nahi dau, parte hartzen dabena formatzeko eta era guztietako esperientziak konpartitzeko modua". Izena emoteko interesa dakenak urriaren 16ra arte eukiko dabe matrikulia betetzeko aukeria, Debarreneneko udaletxe guztietan. Zalantzak argitzeko zein matrikulia betetzeko 695788936 (Eva) telefonora deittu leike. Ikastuaren prezia 200 eurokoa da eta amaieran ikasle guztieri diplomia emongo detse. Klasiak urriak 20xan hasi eta 2016ko maiatzak 26xan amaittuko dira eta astian hiru egunetan (martitzen, eguazten eta eguenetan) emongo ditue, 09.30xetatik 12.30xetara Untzagako jubilau etxian.



Pagatzakuak Asturiasen

Pagatxa emakumien alkartiak antolatuta, argazkixan ikusten dittuzuenak Asturiasera asteburu pasa jua ziran ekaiñian, 19tik 21era bittartian. Bueltan kontau dabenez, ondo baiño hobeto emon zittuen exkursiñuak iraun zittuan egunak eta, bestiak beste, Oviedo eta Xixon bisitatzeko tartia hartu eben.



Sostoaquak bota zeben txupinazua. LEIRE ITURBE

Agur Amañako jaixeri

Berua eta eguzkixa lagun, edarto ospatu zittuen aurreko astian jaixak Amaña aldian. Barixaku arratsaldian Sostoa abesbatzak txupinazua botatziarekin batera, aste-buru bete-betiari egin zetsen aurre auzuan: barixaku gabian Betagarrik, El Ultimo Ke Zierre eta Zarpazo a Cicatriz taldiak emon eben kontzertu itzelak Amañakuak ez eze, kanpoko jende mordia erakarri eban. Egunak, baiña, albiste txarra ekarri zetsazen Jose Antonio Alberdi "Goma" jaixetako antolatzailliari, SGAE alkartiak azken sei urtietan jaixetan egin-dako kontzertuen gaiñeko kano-na pagatzeko erreklamaziñua epaitegixan presentau eta gero, egunian bertan jakiñarazi zetsen eta SGAE alkartekueri 18.000 euro pagau biharko detsazela. Gauzak holan, "Goma" pagatzeko eta datorren urterako jaixak antolatzeko larri ibilliko dala azaldu eban. Edozelan be eta arazuari aurre egitteko urtenbidiak topau

bittartian, auzoko jaixetan betiko lez umore ona eta parrandarako gogua izan ziran nagusi.

Sarixa 3.542 zenbakixarendako

Bestalde, aurreko domekan, hillaen 5ian egin eben Amañako Jaixetako errefiaren zozketia plazan eta premixua, lagun birendako Amsterdamera bidiaia 3.542 zenbakixa dakanarendako izango da. Programako ekitaldi gehixenak aurreko asteburuan pillatuta egon arren, asteburu honetarako zeozer gorde dabe antolatzailliak: gaur auzoko jubilauek Unzaga Plaza hotelian urteroko moduan bazkarixa eukiko dabe eta gabian, barriz, 21.30xetatik aurrera bertso-afarixa egingo dabe Caserrio tabernan, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga bertsolarixekin. Eta domekan, 11.00etan El Salvador elizan Goruntz abesbatzaren parte-hartzia eukiko dabena meziak agurtuko dittu Amañako jaixak, datorren urtera arte.



2010ian abxilotu zittuen auzipetuak. LEIRE ITURBE

Bederatzi urteko kartzela eskaeria

Ekineko zuzendaritzako kide izatia egotzita, bederatziña urteko espetxe-zigorra eta hamaibiña urteko inhabilitaziñua eskatu dau fiskalak auzipetuetako zortzirendako, Aniaiz Ariznabarreta eibartarrerandako eta Rosa Iriarte, Eneko Compains, Jose Aldasoro, Egoitz Garmendia, Urko Asier Aierbe, Erika Bilbao eta Sandra Barrenetxearendako. Ugaitz Elizaranendako, barriz, 12 urteko zigorra eskatu dau. Aniaiz Ariznabarreta 2010eko iraillaren 14an atxilotu eben, bestiekin batera eta, danen moduan atxiloaldixan Guardiak Zibillak torturatu egin zittuela salatu eban. Ia urte bittan, 2012ko uztaillera arte behin-behiñeko espetxealdixan euki zittuen eta, 2011ko urriaren 11an Ekinek desegitea erabagi ebala aditzera emon arren, auzipetuen kontrako zigor eskaeriak ointxe egin dittue. Bestalde, akusaziño partikular moduan diharduen alkartiek zigor haundixagua eskatu dabe: AVTk, hamaibiña urteko zigorra bakoxtarendako eta Dignidad y Justicia, barriz, hamaikaña urteko espetxia zortzi lagunen kontra eta hamalaukua Elizaranen aurka. Oindiok ez dago epaiketarako fetxarik.

Greziarekin bat eginda

Aurreko asteko eguenian Greziako herrixari alkartasuna adierazi nahi izan zetsen ELA sindikatuko militantiak eta, horretarako, erretratuan ikusten dozen alkarrataratzia egin eben Armerixa Eskolaren parian.



autuan

1955-XAN JAIXOTAKUAK

Aurten 60 urte bete edo beteko dittuenak urriak 3an ospatuko dabe. Egunerako plana aurrerago emongo dabe ezagutzera antolatzailliak, baiña juateko asmua dakanak 80 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095 5035 01 9115113201 kontuan, izen-abizenak argi ipiñitta.



ARRATIETARAKO TXOSNAK

Arrateko jaixetarako programia preparatzeko billeria datorren astelehenian, hillak 13an egingo da Portalean (3. pisuko ikastaro gelan), 19.00etan hasitta. Horrekin batera, jaixetan txosnia edo posturen bat ipiñi nahi dabenak uztaillaren 17rako (13.30xetarako) aurkeztu biharko dau horretarako eskaeria, Pegoran.

www.hamaikea.eus

GURE BEGIZ
IKUSTEKO

DEBABARRENA
Sintonizatu
34. kanalean

Hamaikea
telebista

Sankristobalgo jaixak beteko dabe asteburua

Aurreko asteburua Amañako jaixak bete eben moduan, gaur hasten dan asteburua San Kristobalguak beteko dabe. Arratsaldetako 19.00etan botako dabe jaixen hasierako txupinazua eta, jarraixan, urteroko moduan, omenaldixa egingo detse jai batzordekuak aukeratutako auzokidiari. Aurtengo omendua iazko abuztuan ELA gaitzak eraginda hil zan Manu Fernandez izango da eta, omenaldixa ez eze, ELA gaitzari aurre egitten laguntzeko dirua batzeko asmuarekin, azken orduan horren aldeko karrera antolatzea lortu dabe. Gaurko arratsaldia betetzeko, bestiak beste, orkestrak girotutako kalejiria eta umiendako jolasak preparau dittue. Horrekin batera, auzoko tabernetan eta Jai Batzordien txosnetan tortilla, txorizua, urdaiazpikua eta gaztaia banatuko dittue. Eta gabian, 23.00etatik aurrera kontzertu bikoitza hartuko dau auzoko plazoletiak: lehelengo Gansos Rosas taldekuak jardungo dabe, Guns&Roses talde ezagunaren kantuak zuzenian eskintzen eta, jarraixan, 01.00ak aldera Metalmania taldekuak Metallicaren kantuak joko dittue. Aurreko urtietan egindakuari jarraituta, gaurko kontzertua Lambretta Klubekuekin alkarlanian antolatu dabe.

Musikia protagonista

Edozelan be, eta aurreko aste-ko barixakuan Otarra soziedad-ian jaixak presentatzen antolatzailiak esan ebenez, "aurtengo programia osatzerakuan musikiak sekula bai-ño toki gehixago betetzia lortu dogu, estilo diferentietako emanaldixak eukiko doguz asteburu guztian, bakotxak nahixago dabena aukeratu deixan".

Urtero Aizarnako parkian egitten dabena sandia-jana, adibidez, oinguan zuzeneko musikarekin lagundutakua izango da, bixar eguardixan Nuria&Sofia gazte eibartarrak kontzertua emango dabe eta. Arratsaldian, barriz, 19.00etatik aurrera Dominguez maria-txiuak kalejiran ibilliko dira auzuan. Eta gabian, honezkero ohitturia bihurtu dabena jarraituta, aspaldi musika munduan gorenian ibillittako artistia gonbidatu dabe San Kristobalgo eszenarixoa gaiñera igo eta kantatzeko: aurtengo "izarra" urtietan Los Bravos taldeko ahotsa izan zan Mike Kennedy da eta ordubete inguru iraungo dabena bere emanaldixa gaberdixan hasiko da, Drindots talde eibartarrak emongo dabena kontzertua etenaldixan.




Bixarko programia goizetik hasiko da, 09.00etan plazoletan egingo dabena mountain-bike topaketarekin. Hortik aurrera egun osuan egongo da zer egin: umiendako marrazki lehiaketia, Moltó motorren kontzentraziño eta lasterketia, toka eta dardo txapelketak, herri-afarixa... Eta, jakiña, urteroko moduan San Kristobalgo jaixak eta Lambretta motorren urteroko topaketiak kalendarixuan bat egingo dabenez, ekitaldixetako batzuk alkarrekin egingo dittue: hórretako bat zapatu eguardiko Lambretta Motorren XII. Igoeria izango da.

Tirolina bueltan

Eta programiak gitxigora behera urterokuari jarraitzen badetsa be, badago barritanunen bat edo beste: batez be ume eta gaztien artian arrakasta haundixa dakan tirolinarik ez da egon azken urtietan, auzuan egindako biharrak horretarako aukerarik ez ebela-ko emoten, baiña antolatzailiak aurreratu ebenez, "aurten atzera be tirolina ipiñiko dogu eta, beraz, nahi dabena bertan zintzilikauta ondo baiño hobeto pasatzeko aukeria eukiko dau". Fray Martin Malleako parkian egongo da tirolina, saltuan ibiltzeko ohe elastikuekin batera, domeka goizeko 11.00etatik aurrera.

Jaixetako azken egunian egingo diranen artian, bestalde, mezia, paella txapelketia, Gorixoren zezentxo eta ponyak, DJ Arabak girotutako jaixa eta jaixetan saltzen ibilliko diran errifaren zozketia dagoz.



Mike Kennedy eta Gansos Rosas.



MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

2. urteurrena: 2013-VII-7



Ez da egon unerik zutaz croitu ez garenik.

MAITE ZAITUGU, AMAMA. MUXU BAT.



Saharako umeen uda hasi da

Eibarko hiru familiekin batera uda igarotzera etorri diren Saharako hiru umeei, hartu dituzten familiei eta Eibar-Sahara Elkarteko ordezkariari harrera egin zien Miguel de los Toyos alkateak martitzenean. Mariem (9 urte), Hamza (9 urte) eta Bachir (12 urte) ekainaren azken egunetan ailegatu ziren gura, Eibar-Sahara Elkartearen bitartez, eta abuztuaren amaieran bueltatuko dira Tinduf-eko errefuxiatu kanpamentuetako euren etxeetara. Bien bitartean, hemen eman go dituzten bi hilabeteetan umeek euren eguneroko errealitateetik aldendu eta toki eta ohitura berriak ezagutzeko aukera izan-



Hiru umeen bidaia Udalak ordaindu du. SILBIA HERNANDEZ

go dute, "Oporrak Bakean" programari esker. Aurtengoa Eibar-Sahara Elkartek zuzenean Eibarko familietara umeak ekarri dituen lehena da eta, umeek astebete eskas daramaten arren, harrera-familiak eta umeak pozarren eta ilusioz beteta aurkitu genituen alkatetzan egin zieten harreran.

Ume bat udan hartzera animatu den familietako bat Isabel Bolinagarena da: "Guk Mariem hartu dugu etxean. Aurretik, beste urte batean bere anaia ekarri genuen, baina 12 urte betetzean ezin direnez programa honen bidez etorri, ba bere arreba ekartzera animatu gara eta, ahal dugun artean datozen urteetan umeak hartzen jarraitzea gustatuko litzaiguke. Kanpamentuetan egondakoa naiz eta, beraz, badakit nola bizi diren. Umeak oso gustora ekartzen ditugu uda gurekin pasatzera".

Idoia Aranburuk hiru umeen artean "beteranoa" den Bachir hartu du. Hamabi urteko umeak bosgarrenez eta azkenekoz pasatuko du uda Euskal Herrian. Etorri eta berehala, familiarekin batera Galdonako kanpinean instalatuta dago. Idoiak badaki umeak aldi-baterako hartzea zer den, aurretik Txernobilgo umeak urteetan ekarri ditu eta. Edozein kasutan, "beti esperientzia oso aberasgarria" dela dio. Eta gauza bera uste du Hamza hartu duen Claudia Sanchezek.

Nolakoa da bizitza, hemen jaiotakoak diren Yamilaren semeak kontrako norabidea hartu eta lehenengoz amaren sorterrira, Tindufeko kanpamentuetara joan direla. Euren esperientzia ere benetan aberatsa izango dela zalantzarik ez daukagu.

Eibar-Sahara Elkartearen ibilbidea

2012: Elkarre moduan eratu eta Eibar eta Elgoibarko ikastetxeetan elikagaiak batzen hasi ziren. Erabilitako liburuen salmentarekin ere orduan hasi ziren.

2013: Errefuxiatu-kanpamentuak bisitatu eta gero, hango familia bati 300 euro bidali zitzaizkion, 3 urteko alaba Argelera, ospitaleko kontsulta batera eramateko aukera izateko. Elikagaiak batzeko beste kanpaina bat antolatu zuten eta berriz ibili ziren liburuak saltzen. 1.500 euro erabili zituzten zaharrendako pixoihalak erosi eta errefuxiatuei bidaltzeko.

2014: Elikagaiak batu zituzten eta berriz liburuak saltzen ibili eta gero, lortutako dirua eta aurreko urteetatik zutena batu eta 2.500 euro Saharako errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren desgaituendako kakao eta gailetak erosteko erabili zituzten. Elkarteko kide bat elgoibartarra dela aprobetxatuta, liburuak Elgoibarren ere saldu zituzten eta lortutako

diruarekin kanpamentuetara bidaia egin zuen, hango premiak ikusi eta laguntzeko proiektua aztertzeko.

2015: Urteroko martxari jarraituta, elikagaiak batu eta liburuak saldu zituzten berriz. Diru horrekin Sahararen alde Bilbon egin zen manifestaziorako autobusa ordaindu zuten eta kanpamentuetara 1.100 euro bidali zituzten, behar zuten bigarren eskuko automobila erosteko. Bigarrenez irten ziren liburuak saltzera eta, diru hori aurreko urteetatik geratzen zenarekin batuta, 2.508 euroak errefuxiatuei bidaltzeko elikagaiak erosteko erabili zuten. Aurreko urteetan bezala, elikagaiak El Corte Inglesean erosi zituzten, merkataritza zentru horrek Saharara bidaltzeko elikagai gehiago oparituta laguntzen duelako. Elkartek Eibarko supermerkatu eta botiken, udalaren, ikastetxeen eta beste hainbaten laguntza jasotzen du eta, horregatik, horiei guztiei eskerrikeri beroenak eman nahi dizkie.

MARIA GISASOLA UGARTEBURU 2. URTEURRENA: 2013-VII-11



ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN.

Zure familia



Euskal kostaldeko Geoparkea

Geologia, natura eta kulturen oinarritutako garapena

Euskal Kostaldeko Geoparkea Zumaia, Deba eta Mutriku udalerriek osatzen dute eta, 2010az geroztik, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kidea da, UNESCOk babestua. Geoparkeko 13 kilometroko itsaslabarrek haitz-geruzek osatutako formazio ikusgarria gordetzen dute, Flysch izenekoak. Entziklopedia baten antzera, Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiago irakur daitezke bertan. Oinez edota itsasontzian ibilaldi ederra egin daiteke, denboran zehar bidaiatzeaz gainera hainbat aurkikuntza egiteko; esate baterako, geruza horien artean dinosauroen desagerpenarekin zuzenean lotutako lerro beltz eta mehea ikus daiteke.



Turismoak pisu handia dauka Geoparkean. Helburua ezagutza eta errespetua zabaltzea da.

Geoparkearen barnealdean, Behe Kretazioko kareharrizko mendiz osatua, bailara itxiak aurki daitezke. Bertan tradizioak eta paisaiak ia-ia ukitu gabe mantendu dira gaurdaino. Mendi horiek higadura handia jasan dute eta, ondorioz, berezitasun karstiko bilduma garrantzitsua aurki dezakegu bertan. Nabarmenena, Paleolitikoan okupaturik egon diren hainbat eta hainbat koba. Geoparkeko ondare arkeologiko interesgarri horren baitan Ekaingo labar-pinturak ditugu. Substratu geologikoa ezinbesteko baldintzatzailea izan da milaka urteko kultura finkatzeko, eta gaur egun oraindik ere bertako bizilagunen ohituretan bizirik dirau.



Javier Carballo

Euskal Kostaldeko Geoparkeak lankidetzaz hitzarmenak ditu hainbat erakunde zientifikorekin. Lurralde honetako berezitasun geologikoen kontserbazioa, ikerketa eta dibulgazioa da helburu nagusienetako bat. Horretarako ikusentzunezkoak, gida-liburuak, liburuak eta dibulgaziorako bestelako hainbat bakiabide argitaratzen dituzte, ondare geologikoa ezagutzera eman eta zabaltzeko asmoz.

Webguneari eta sare sozialei garrantzi handia ematen diete Geoparkeko arduradunek. Webgunean zenbat bisita gidatu dauden ikus daiteke, ordutegiak, prezioak,... Izen-emate gehienak *online* egiten ditu jendeak, etxetik irten gabe.



Foto © Earbero - 2012



Bisita gidatuak antolatzen dira. Barkuan egiten direnak arrakasta handia daukate eta barnealdean ere oso bisita interesgarriak egiten dira bailarako baserri eta gaztandegietan.

Geoparkearen eskaintzarik indartsuena bisita gidatuak dira. 10 bisita desberdin daude. Aurten, Aste Santutik abendura arte, 500 irteera egingo dituzte. Hasieran barkuak betetzea zaila bazen ere, gaur egun arazorik gabe betetzen dira. Barkuan aukera asko dago, webgunean azaltzen den eskaintza zabala ikusi besterik ez dago. Orain, barnealdeko bisitak bultzatu nahi dituzte arduradunek, esate baterako Olatzen "Karstekozapareak" bisita edota "Artzain txikiak" bisita Lasturren.

Paisajeak duen interesagatik, oinez jende asko ibiltzen da Euskal Kostaldeko Geoparkean. Bertako arduradunek bisita interpretatuak egitea gomendatzen dute, "horrela ikusten delako nolako garrantzia daukan guzti honek: 60 milioi urtetan Lurraren historian gertatu dena ikus daiteke". Bisita gidatuak gustoko ez dituen jendearentzako ere aukera ezberdinak daude, esate baterako, iaz 15 lekutan panel informatiboak jarri ziren eta miradore bat Elorrixan. "Donejakue bidea ere hortik pasatzen da eta jendea Geoparke baten dagoela konturatzea nahi dugu", azaldu digute. Geoparkea bere kabuz ikusi nahi duenak hiru Turismo bulegoetan lortu dezake informazioa.



Barkuan irteera asko egiten dira. Erreserbak online egin daitezke.

LEIRE BARRIUSO ASTIGARRAGA Geoparpen-eko arduraduna

"Kostaldea da gehien ezagutzen dena eta gure erronka bisitariak eta ikerlariak kostaldetik barnealdera eramatea da"



Barriuso eibartarra Euskal Geoparkea kudeatzen duen Geoparpen Elkartearen gerentea da.

– Zer da Geoparkeen Sarea eta nola sortu zen Euskal Geoparkea?

Geoparkeek dimensio internazionala daukate eta izugarri zabaltzen ari dira. Gaur egun 110 Geoparke daude mundu osoan, gehienbat Europa eta Asian. Europan 65 inguru daude.

2.000. urtean Espainia (Maestrazgo), Grezia, Frantzia eta Alemaniako 4 lurraldeko Europako proiektu batean parte hartu zuten. Lurralde hauek geologia inportante bat zeukaten eta geologia horren bitartez garapena egin nahi zuten. Europako dirulaguntza amaitu zenean, bertan behera gelditu beharrean, hautagai gehiago proiektura gehitzeko prest azaldu ziren eta proiektuak aurrera jarraitu zuten, mundu mailakoa izatera pasatuz.

Guk hautagaitza 2010ean aurkeztu genuen; beraz, 4 urte daramatzagu Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean. 2014an lehengo rebalida pasatu genuen eta, horri esker, beste lau urtetan jarraituko dugularen bermea daukagu. Geoparkeek orain arte UNESCOren laguntza eta babesba izan dute. Dena dela, UNESCOk azaroan egingo duen asanblada orokorrean oso erabaki garrantzitsua hartuko da: Geoparkeen programa UNESCOren baitan hartzea, eta hau salto garrantzitsua izango da, batez ere promozioaren ikuspegitik.

– Nola azalduko zenuke Euskal Geoparkeak eskaintzen duena?

Geoparkea Deba, Zumaia eta Mutriku osatzen dute. Oso geologia berezia eta garrantzitsua daukagu. Hemengo eta atzerriko zientzilariek urteak eta urteak daramatzate gure geologia aztertzen. Bisitariak gehien ezagutzen dutena kostaldea da, eta guretzako erronka bat da bisitariak barnealdera eramatea. "Flysch and Karts experience" leloa erabilita, ikerlari eta bistarien flujok horiek barnealdera eraman nahi ditugu. Beraz, geologia oinarri bezala hartuta, gure kultura eta natura ezagutzera ematea da gure zeregina. Barneko bailarak ezagutzera emateko gauza asko egiten ari gara: panelak jarri, foiletoak atera, bisita gidatuak bertako gaztandegietara eta baserrietara... Azkenean garapen lokala da egiten duguna. Bisita gidatueta geologia azaltzen da, baina gero bertako ohitura eta tradizioak lotu egiten dira geologiarekin. Beste Geoparke batzuekin konparatuta, gure Geoparkeak kultur dentsitate oso handia dauka, jende asko bizi da bertan, eta ondorioz baliabide asko ditugu gauzak egiteko.

– Deba, Mutriku eta Zumaiko Udalen laguntza daukazue, ezta?

Hiru udalen konpromisoa oso inportantea izan da hasieratik. Geoparkean sinisten dute eta urtero-urtero beraien dirulaguntza eta babesba daukagu. Hiru udaletan sortzen diren ekimenak koordinatu eta hedatu egiten ditugu. Elkarlana ezinbestekoa da. Gainera, fruituak ematen dituela ikusten da. Urte gutxitan oihartzuna oso handia izan da. Atzerrian (adibidez, Hego Amerikan) oso interes handia sortu du eta ikastera hona etortzen dira. Gestio aldetik garapen-proiektua nola egin dugun ikastera etortzen dira.

INFORMAZIOA:

www.geoparkea.com

[facebook.com/Geoparkea](https://www.facebook.com/Geoparkea)

[@geoparkea](https://www.instagram.com/geoparkea)

Argazkilaria: PACO BARBERO, JON LLORDÉS ETA JAVIER CARBALLO

13 urte egingo ditu irailean, gazteegia akaso sekzio honetarako, baina maila handiko garaipenak eskuratu ditu Klub Deportiboko atletismo taldearekin. Guinea Bissautik Eibarrera etorritako atletak burua ateratzen dizkie taldekide guztiei eta bere etxean dominak pilatzen dihardute. Ahalmen handiak ditu jauziak eta jaurtiketak egiteko eta eskuratutako emaitzekin pozik dago. Euskadiko hainbat txapel jantzi ditu azken denboraldian, autobusean kiritioak dantzan izanik ere, pistan gaintitzen ondo dakielako. Bitartean, Unbera oinez jarraitzen du igotzen.

- Zenbat urte daramatzazu atletismoan? Zrean hasi zinen?

Laugarren denboraldia izango zen aurtengoa. Aitak animatu ninduen, bai foballean egitera eta baita atletismoa praktikatzera.

- Zenbat egunetan entrenatzen duzu astero? Ordu asko?

Martitzen, eguen eta barixakuetan ditugu entrenamenduak. Zenbat orduko saioak? Bizpahiru izango dira.

- Zein modaliteetan jarduten duzu gusturago?

Jauziak eta jaurtiketak ondo datozkit: gustatzeaz aparte, ondo moldatzen naiz. Luzera jauzia oso gogoko dut. Abiadura ere atsegin zait, ez pentsa!

- Gustoko kirolaririk? Edo atletarik, akaso?

Argi dut: Usain Bolt. Zein azkarra den, zentzu guztietan! Eta atleta bikaina.

- Hotzarekin ala beroarekin moldatzen zara hobeto? Eta, dituzun ahalmenekin, pista estalian ala aire zabalean?

Beroa hotza baino nahiago dut... askogatik, gainera! Ho-

tzarekin ezin dut: afrikarra izanda, berora ohituago nago-elako. Bestela, probak egiteko bietan moldatu naiteke, baina aukeran pista estalia nahiago.

- Arrateko Bolunburu Memorialean izan zara noizbaiten?

Bai. Ondo gogoratzen dut bertako lokatza, hotz zela...

- Zelako harremana duzu Klub Deportiboko taldekideekin?

Ondo, pozik nago dugun harremanarekin. Ondo konpontzen gara guztion artean, elkarren artean animatuz. Inma Urkiola prestatzaileari ere kasu egiten diogunez, emaitzetan ikusten da gero.

- Orain oportetan Guinea-Bissaura bueltatuko zara?

Ez, urteak dira ez gabela bueltatu. Baina, oportetan, hemen ere ondo pasatzen dut. Anai nagusiena naiz eta Eibarren gustura bizi naiz familiarekin.

- Ikasketak amaitzen dituzunean, zertan gustatuko litzaizuke jardutea handitan?

Ahal badut, atleta izatea ez litzateke txarto egongo. Orain 6. mailara pasatuko naiz, Itziora.



Carlitou Mendy
(ATLETA)

“Ez litzateke txarto egongo Usain Bolt modukoa izatea”



SI MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Elkartasun Bekak eskatzeko epea zabalik

Nazioarteko elkartasuna Eibarko gazteen artean sustatzeko asmoz, beka biren deialdia argitaratu du udalak. Bekak eskatzeko epea 2015eko uztailaren 27ra artekoa da eta beka eskuratu ahal izateko eskatzen dituzten bete beharreko baldintzak, besteak beste, eskaerak aurkezteko epea amaitzean 20tik 40 urte bitartera izatea eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehen gutxienez hiru urtez Eibarko udal erroldan izen-emanda egotea dira. Horrekin batera, deialdi honetarako



aurkeztuko den proiekturako beste erakunde edo elkarteren batek antzerako bekarik jaso ez izana eskatzen dute.

Beka bien tramitazioa Gizarte-kintza saila izango da, baina eskaerak Pegora Herritarren Zerbitzurako Bulegoan aurkeztu beharko dira, gaitortze-ko dokumentazioarekin batera: Elkartasun Bekak eskatzeko orria behar bezala beteta; eskatzailearen NANaren kopia edo balioreko beste dokumenturen bat; eskaera egiten



duenaren bankukontuaren titulartatearen frogagiria (bankuaren kontu-laburpenaren fotokopia, aurrezki-libretaren fotokopia, bankuak luzatutako ziurtagiria edo bekarako eskaerorrian "diru-laguntza jasotzeko kontua" atalean bertan banketxeak emandako zigilua onartuko dituzte eta eskaera egiten duenaren nortasunarekin bat etorri beharko da).

Aipatutakoez gain, beka eskatzaileak proiektuari buruzko hainbat argibide eman beharko ditu: zertan egingo duen lan, non, zenbat denboraz eta proiektuaren ardura duen GKEren izena, besteak beste. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.eibar.eus helbidean begiratu daiteke edo, bestela, zuzenean Pegoran galdetu.

Medicus Mundirekin Perura abiatu da Nerea Olano

Nerea Olano eibartarra, beste hiru gazterekin batera, Perura abiatu zen aurreko astean, herrialde horretako Manuela Ramos Mugimendurekin elkarlanean komunitate-osasun arloan hilabete bi praktikak egiten pasatzeko. Lau kooperanteek Medicus Mundi Gipuzkoak antolatutako XIV. Sexu eta Ugaltze Osasunari buruzko ikastaroan parte hartu zuten eta praktikak egiteko interesa zuten ikasleen artean egindako hautaketa-prozesuan eurak aukeratu dituzte erakundeko arduradunek. Perun garatuko duten programak emakumeek sexu eta ugaltze arloko eskubideetan jasaten dituzten urratzeak murriztea bilatzen du eta, horretarako, Ucayali, Ayacucho eta Limako 14 ikastetxetan Sexu Hezkuntza Integrala abiarazi nahi dute, gerora herrialdeko beste eskualde batzuetara zabaltzeko esperantzarekin. Haur Hezkuntza Magisteritza eta Psikopedagogia ikasi dituen eibartarra aurretik ere Perun, Egoaizia GKE-aren proiektuan laguntzen ibilitakoa da.



Nerea Olano aurretik ere izan zen Perun Egoaiziarekin lanean.

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
 KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO

Astelehenetik
 ostegunera
PIINTXO-POTEA!



Azido hialuronikoko
 ile-tratamendu berriak

Khôl
 Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

Ez dira konformatu bidaiatzearekin. Makina bat txoko ezagutu dituzte. Ezagutu zentzu zabalenean gainera: tokian tokiko jendearekin partekatu dituzte bizipenok. Gero hori erakusten saiatu dira, asko euren ibileren konplize bihurtzeraino. Aurreko asteko martitzenean orain dela urte batzuk Iranera egindako bidaiaren diaporama aurkeztu zuten Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Ikus-entzunezkoaren Asteko 25. edizioan. Gaur egun Zornotzan bizi diren **Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal** eibartarrak bidaiari nekaezinak jarraitzen dute izaten eta har hori Uxue eta Garazi alabei kutsatzeko bidean dira.



EZAGUTZEN

bestelako mundu batzuk



Etiopia

Belarrez, harriz, hondarrez eta izotzez jantzitako mendietan ibili da Eibarko bikotea. Mendiek piztu zuten hainbat bidaiarekin egitera animatu dien metxa. Asier mendizalea zen, familiatik zetorkion; Mila geroago zaletu zen. "Pirinioetan, Alpeetan... ohiko mendizaleen prozesua egin dugu. Eskaladan ez dugu jardun". 2002an ezkondu eta, mendizaletasunak gidatuta, Nepalera bidea hartu zuten ezkon-bidaian. "Everesteko kanpalekuan izan ginen, 6.000 metrora. 20 bat eguneko zeharkaldia egin genuen, herrietan 3-4 egunetan geratzeko aprobetxatuta". Horrek bertako herritarrekin egoteko aukera eskaini zien, presarik gabe ibiltzeko. "Astiro joateaz gain, argazkiekin jolas-teko aukera izan genuen". Esperientzia hori errepikatu behar zutela pentsatu zuten. Horrek bideratu ditu bidaiak ikus-entzunezkoekin lotzera; paisaia bixiak bilatzera eta bertako jendearekin bizitzera. Bizitzera, baina hizki larriz: tokian tokiko parte izanik.

kozia, Islandia eta Groenlandia... Eibarko bikotea ez da gel-dirik egon azken 13 urteotan. Kontatzen dutenez, "bidaiatze-ko beste modu bat deskubrituz, zerbait hartzeko tabernatxo modukoetan geldituta". Ezkondu baino urte bi lehenago argazkilaritza lantzen hasia zen Aranzabal. "Ikastaroko irakaslea izan zuenari erakutsi nion Nepaleko materiala eta hark proposatu zidan ikus-entzunezkoa egitea". Argazkiak aukeratu, musika jarri eta bidaiaren nondik norakoak azaltzen zituzten ahotsak grabatu zituzten, eurenak. Ordudanik makina bat herritan izan dira: "Urte onenetan, 2008tik 2010-era, 30 emanaldi eskaini genituen urtero. Kulturaleko uztaileko astean zortzi-bederatzi aldiz izan gara. Klub Deportiboan eman genuen lehena, eta liburutegian ere izan gara, bitan".



Iran



Mali

Gustura ibili dira bidea egiten, eta berriro ekiteko gogoz dira. Azken urteotan familia handitu dute eta horrek atsedean hartzea ekarri die, hain gustokoa dutena alde batera lagata. Lau urteko Uxue errodaje fasean dago, urte eta erdiko Garazik, "erdi lo", kexatzen ez den bitartean. Aurreko urteetako mendibide-

Nepal, Peru, Etiopia, Argeliako hegoaldea, Mongolia, Indonezia, Maroko, Iran, Kaxmir-Ladakh, Mali, Tunisia, Papua, Es-

ak, bidezidorrak, zaldibideak... zapaltzeko gogo ez da ahuldu, "sasoi berrira egokitzea tokatzen bada ere". Autoak eta hala-koak baztertuta, oinez ibiltzea nahiago dute "edo tokietako medioetan: zaldiak edo game-luak direla, kanoak... Hegaldi txikiak ere egin ditugu tribu bat ezagutzeko". Beti ere, ahalegin-tzen dira aurretik gidari batekin gauzak lotzen: "Tokian-tokiko jendea ezagutzea ezinbestekoa da eta, horretarako, zer hoberik hango batek laguntzea baino? Mongolian, esaterako, gure interpretea zaldien jabea eta basozaina zen, eta bere familiarekin partekatu genuen janaria eta loa. Malin zortea izan genuen Kuban egondako bertako batekin topo egitean". Afrikako ipar mendebaldean izan baitute arazo gehien hizkuntzarekin: "Iru-dimenaz aparte, ingelesarekin ia herrialde guztietan konpondu garelako. Afrikako eremu horretan frantsesa da nagusi eta gu herren gabiltza hor. Ulan Bator-en ez genuen arazorik izan". Aukeraturako tokietara iristea ez dute beti erraz lortzen, turismo gune handienetatik urrun baitaude. Sarritan, gainera, "bertakoek ezagutzen ez dituzten lekuetan" sartu dira eta baita etnia ugari ezagutu ere: sherpak Nepalen; machiguengak, Andetako inkak, aimarak eta kitxuak Perun; amharak, surmak, diziak, karoak, hamerak eta humeak Etiopian; tuaregak, tsaatanak eta kazakh-ak Saharan; daniak

eta Tana Torajakoak Indonesian; shahsavanak eta kashgaiak Iranen; peulak, bozoak eta tuaregak Malin; berberek Marokon...

Ezagutu eta ezagutarazi. Leioako Unibertsitateko irakaslea da Asier eta Bilbon egiten du lan Milak. Horrek abutzuko oporraldian bidaiatzera derrigortzen ditu, Aste Santuan bidaiari laburragoak egin badituzte ere. Bidaietatik bueltan, irailean, hasten dira diaporama prestatzen: "Bospasei hilabeteko lana da. Otsailerako amaitu eta martxoan aldera hasten gara hurrengo irteera prestatzen". Euren proiektioekin asko dira bidaiatu dutenak, "bizitakoa transmititu egin didazuelako" ikusle batzuen esanetan. Diapositibekin hasi zirenean, 1.500 inguru baziren gero muntaia egiteko, ondorengoak 7.000 argazkirekin bueltatzea ekarri du, selekzio lana zailduz. Iranera eta Mongoliara egindako bidaiak gustatu zaizkie gehien, "Cachemirara egindakoarekin batera; han hinduen erromesbide batean izan ginen. Herrialde horietara bueltatzea gustatuko litzaiguke alabak kortsutzerakoan". Laukoteak abentura proba egin du Aste Santuan, bizikletan: "Zazpi egunetan 20 kilometro egin ditugu egunero bidegorritik, Midiko ubidean. Uxuek bikain erantzun du eta Garazik lasai egin du lo". Abutzurako plana eginda dute: "Austriara joango gara, Danubiora, 15 egunerako".

Mongolia



Indonesia



Peru



Islandia eta Groenlandia



Ipuruako gimnastek ikasturtea agurtu zuten

Eibar, Soraluze, Markina eta Mallabiako 150 neska izan ziren ikasturtea agurtzeko egindako erakustaldian. Hor Ipuruako gimnasia erritmikakoek azken denboraldian egindako aurrerapenak erakutsi zituzten. Lehiaketetan ere denboraldi bikaina burutu dute eibartarrek: kadeteen taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldu-na izan da, 40 klubean artean Euskalgym-a bereganatzeaz gain; amateur mailan, jubenilak eta kadeteak Euskadiko azpitxapeldu-n izan dira; eta, eskola artekoan, infantil mailako taldeak Euskadiko urrezkoa lortu zuten. Bestalde, Jennifer Hernandez federatu ab-solutoak Ipurua lagako du, bertan lehen taldearekin hiru denbo-



Gimnasia erritmikoak zaletasun handia du gure eskualdean.

raldi egin ondoren, Gasteizera bueltatzeko. **Uztailean teknifika-zio klaseak eskainiko zaizkie** euren maila hobetzea nahi dutenei eta baita modalitate horrekin lehen kontaktua egin gura dutenei. Ikasturte berrirako matrikulatzeko epea zabalik izango da hilabe-te osoan eta klaseak irailaren 9an hasiko dira.



Bikeibar Pirinioetan izan zen

Oraingoan mendiko bizikletak baztertu zituzten Bikeibar-ekoek eta erre-pidekoekin abiatu ziren Pirinioetara hango mendate batzuk igotzeko. Zapa-tu goizean Lourdes ingurura joan ziren autobusez eta, bertatik abiatu-ta, Tourmalet eta Hourquettes d'Ancizan gainak pasata, Arreaura jaitsi zi-ren. Domekan, berriz, Bagneres de Luchon hiritik atera ziren Port de Ba-lés eta Peyresourde gainetara heltzeko, berriro ere Arreaura bueltatu au-rrerik. Asteburu paregabea, beraz, Bikeibar-eko txirrindularitza zaleentzat.

Foball 7 Txapelketa Kopako azken fasean

Multzoetako fasea amaituta, Roke-txe Crow nagusitu da A multzoan, La Sisha Mecanica B-n, Sobras Crew C-n eta Hirurok D-n. La Sisha Meca-nica kenduta, gainera, beste hirurak jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte. Aurreko zapatuan Kopako



fasari ekin zioten Mintxetan eta bihar final laurdenak jokatuko dituzte eszenategi berean 09.00etatik 12.00eta-
ra orduro honako partiduekin, hurrenez hurren: Roketxe Crew vs Garito, Sobras Crew vs Vater de Munich, La Sis-ha Mecanica vs Peuperrimo eta E.G.S. vs Mas que Oloso. Horko irabazleek finalerdietan neurtuko dituzte inda-rrak datorren martitzenean, hilaren 14an, eta 3. eta 4. postuak erabakitzeke eta finala barixakuan jokatuco di-ra, hilaren 17an. Bailarako Foball 7 Txapelketako 18. edi-zioiko azken jardunaldi biak Unben jokatuco dira.

"Euskal Jaia Eibarren. 50 urte"

LIBURUA ETA DVD-A
10 €-TAN SALGAI

Klub Deportiboan
(T. Etxebarria, 16
-ARRATSALDEZ-)

...eta kitto!-n
(Urkizu, 11)

Yraolagoitia
liburudendan
(Bidebarrieta, 20)

Echetto prentsa
kioskoan (Urkizu, 6)

Arriola prentsa
kioskoan (Untzaga, 10)

Laes informatika
dendan (T. Anitua, 4)



Argazkian Euskal Jaiaren 50. edizioaren bueltan zozketatutako **ERRIFAREN IRABAZLEAK**: 1. saria (euskal jantziak eta koadroa), 2.a (argazki-makina) eta 3.a (bi lagunendako afaria).

AURTENGO EUSKAL JAIAREN
ARGAZKIAK IKUSGAI
TOPALEKUAN (18.30-20.30)

Eibar Foball Taldea hasi da entrenatzen

Kontratua duten hamar jokalarirekin egin zuen Mendilibar entrenatzaile berriak aurrendenboraldiko lehen entrenamendua herenegun arratsaldean. Ekiza ez zen izan aipatutako horien artean, operatuta dagoelako, baina entrenamenduan hemezortzi jokalaria bildu ziren, tartean izan baitziren harrubiko beste bost, Baskoniatik etorritako bi eta Danok Bat-etik heldu den beste bat. Taldeak, bestalde, bost partidu jokatuko ditu hilabete honetan: hasteko, uztailaren 18an Galsgow-eko Celtic izango da Ipuruan, Eibar KE-ren 75. urteurrena ospatzeko neurketan; 23an Las Gaunasen jokatuko du UD Logroñesen aurka; 24an Irungo Real Unioni egingo dio aurre Bergarako Agorrosinen; 30ean Mirandesen zelaian, Anduvan jokatuko du; eta hilaren azken egunean Osasuna izango du aurkari Oliten. Liga abuztuaren 22an hasiko da.



motzean

KIROL PATRONATOA

Eibarko Kirol Patronatoak hilaren 6an, astelehenean, zabaldu zuen Dantza Txiki modalitatean parte hartzeko izena emateko epea eta baita 2015-16 denboraldian kirola egiteko inskripzio epea.

ARETO-FOBALLA

Debarrena areto-foballeko talde nagusiak hainbat fitxaketa egin ditu dagoeneko hurrengo denboraldiari begira. Horrela, Kimetz Lopez eta Iker Diez heldu dira Santurtzitik, Marcos Tobalina "Tobas" Aurrera de Vitoriatik, Jon Ander Navarro Durangoko Sasikoatik, Yahya Abdel Ilah Zamudiotik eta bi elgoibartar: Urtzi Intxausti, Elgoibar Foball Taldetik datorrena, eta Imanol Perez orain dela bi-hiru urte areto-foballa laga zuena eta orain bueltatzen dena. Bestalde, Jota Arregi entrenatzailea hizlari izan da Xixonen antolatutako ANEFS kongresoan.



Herriko hirukotea bikain Espainiako junior mailako atletismo txapelketan

Aurreko asteburuan Valladoliden jokatutako Espainiako junior mailako txapelketan, Eibarko Klub deportiboko Odei Jainagak eta Ainhua Azpiazuk hobekuntza sartzea lortu zuten eta, azkenean, seigarren postuan amaitu zuten biek ere. Jabalina jaurtiketan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkunek ondo jardun bazuten, zer esanik ez Tomas Vouillozek. Azken honek, lehendik ere parte-hartzaileen artean bigarren marka bazuen, oraingoan azpitxapelkun geratu zen dekatloian, bere marka hobetuz eta Euskadikoa berriro ere eginez.

ARRATEKO BERTSO-AFARIA

IRAILAK 7 ASTELEHENA

KANTABRIAN 21.00ETAN

SARRERAK BAZKIDEENTZAT

salgai 31 eurotan (bazkide bakoitzak sarrera bana)

uztailaren 17ra arte ...eta kitto!-n (10.00-14.00 eta 17.00-20.00)

GAINONTZEKOENTZAT

salgai 32 eurotan

uztailaren 18tik aurrera Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan

**Sebastian
LIZASO**

**Unai
AGIRRE**

**Jon
MAIA**

**Andoni
EGAÑA**

GAU MAGIKOA





Ipuruako La Terraza tabernak bost zapaturako musika saioak antolatu zituen, uztaillaren 4an hasi eta abuztuaren 1ean amaitzeko. Baimenaren faltan aurreko zapaturako etenarazi egin zieten eta hilaren 18tik aurrera egingo dituzte hurrengoak. Bernardo Aguilera osatutako egitaraua afaldu aurretik hasten da eta afalostean jarraituko du zapatuero. Musikak Ipuruako gauaz gozatzeko aukera dakar.

ROBERTO BERGARA (La Terraza): "Musika emanaldiak bezeroak saritzeko dira"

- Zer gertatu zen aurreko zapatuan Javier Paivaren emanaldia bertan behera geratzeko?

Bateren bat kexatu zela eta udaltzainek baimenik ez genuela esan zigutela. Behin jakinarazi zidatenean, aguazilei alde egiteko esan nien eta nik eman nien ikusleei gertatzen zenaren berri. Pena izan zen, 80-100 lagun gustura zeudelako Javier Paivak pianoarekin eskaintzen zuen kontzertua entzuten. Bikaina, benetan, haren lana.

- Hilabete osorako programazioa hankaz gora laga dizuete, beraz.

Lasai, moldatuko gara-eta. Hori bai, asteburu honetan ez da musikarik izango La Terrazan, kalea okupatzeko hogeiei eguneko aurre-rapenez baimena eskatzera derrigortzen gaituztelako. Hurrengo zapatuan, hilaren 18an, Sergio Sanabriak urrezko atzamar guaranien kalitatea erakutsiko digu Paraguaiko arpa jotzen. Hurrengo zapatuan, hilaren 25an, Son Kandela donostiarrek saltsa eta merengea dantzatzeko aukera eskainiko digute. Eta, azkenik, abuztuaren 1ean Los 4 de Zapata Bilboko mariatxiak korridoak eta rantxerak abestuko ditu. Ekitaldi bat edo beste aste horretako barixakura pasa daiteke.

- Azkenean Carlos Javier erori zaizue karteldegitik, ezta?

Jakina, asteburu bat gutxiagorekin geratu gara-eta. Baina edozein egunetan ekarriko dugu, merezi duelako. Donostian bizi den kantautore txiletar horrek euskaraz abesten du eta, Silbio eta Pablora abestiekin batera, Benito Lertxundirenak ere interpretatzen ditu.

- Zelan bururatu zitzaizun horrelako egitaraua prestatzea?

Uda sasoiari leku egokia delako hemengo ipuruako jendeari eta gure bezeroei sari modukoa emateko. Txikito bat eman beharrean, zergatik ez doinu politekin gozatu? Gainera, musika oso gustuko dut eta baita beste herrialdeetako instrumentuak. Horregatik diot baimena eskatzearena larregizkoa iruditzen zaidala: jakinarazi bai, baina zertarako eskatzera derrigortu? Edozer gauza antolatzeko, enpresa pribatuak mugatuta daude. Auditorio handi bat behar dugu.

- Aurretik ere Trio Medianoche eta Aterri La Terrazatik abiatu ziren. Badabilkizu asmo berriak burutik?

Bertsolari-saioa gustatuko litzaidake prestatzea, Eibarko gazte jendea eta baseritar beteranekin, batzuen etorria eta besteen iturriarekin jokatzeko. Eta hilabete bat eman diot nire buruari Eibar Foball Taldea animatzeko abestia prestatzeko. Euskeraz, jakina!



Umeak San Fermin ospatzen

Urteroko moduan, Astixarekin udaleku irekietan dauden umeek ederto pasatu zuten martitzenean, San Fermin egunean, "San Fermin Txiki" jaia ospatzen. Anbulategi pareko parkean batu eta jarraian, Toribio Etxebarriatik kalejira joan ziren Untzagaraino eta, udaletxeko balkoitik bota zizkieten goxokiak hartuta, beste plazara joan ziren, Gorritirekin jaia jarraituz.

Sostoaren oterra jaso dute



Sostoa abesbatzak sanjuane-tan, ekainaren 19an egindako 200 euroko balioko oteraren zozketako zerbaki sari-dunaren (8.923) jabea agertu da. Argazkian pozarren ikusten duzuen M^a Asuncion Lasoncion, Ifar Sukaldeak-eko dendaria izan da irabazlea eta Sostoakoek saria entregatu diote. Zorionak eta on egin!



Txosnetako sariak banatuta

San Juan jaietan Jaixak Herrixak Herrixandakok egindako zozketako irabazleak agertu dira: lehen saria, Deporren afaria Iñigo Muñozari tokatu zaio. Eta argazkian bigarren sariaren irabazlea, Balen, lagunekin batera Hirurok tabernan bapo afaltzen, saria disfrutatzeko ikus dezakezue. Zorionak irabazle biei!



Atxagarekin pelotaz berbetan

Aurreko asteko eguenean eibartar talde bat Armagintzaren Museoa batu zen, Bernardo Atxaga idazleak egindako deiar erantzunez. Atxagak deitutako bileraren asmo nagusia pelotari buruz berba egiteko lagunartea elkartzea zen. Izan ere, Euskaltzaindiak argitara ematen duen Erlea aldizkariko hurrengo zenbakia pelotari eskainiko diote eta, argitalpen horretako egile nagusia Atxaga denez, pelotari lotutako bizipenak, oroitzapenak eta bestelako datuak bazteko antolatua zuen bilera. Aldizkarian landutako gaiak beti ikuspegi artistikoari jarraituta idazten direnez, Atxagak deitutako lagunen artean denetarik zegoen: ordu pare batez gure herriko hainbat pelotazalek, Jose Antonio Azpilikueta moduko artistekin batera pelotaz berbetan gustora jardun zuten. Atxagak Eibarrekin lotura berezia dauka, bere ama umetan gurrera beharrera etorri eta Aldatzen ikasi zuelako.


Bertso-afarirako txartelak salgai

Arrateko jaiak direla eta, irailak 7an (astelehenean) 21.00etan Kantabria jatetxean egingo den bertso-afarirako txartelen salmenta hasi da ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideentzat: uztailearen 17ra arte bakarrik bazkideei salduko zaie (bazkide bakoitzari sarrera bana), 31 eurotan, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarekin), 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Bazkide ez direnentzat salmenta, berriz, uztailearen 18an hasiko da, 32 eurotan, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan. Aurten Sebastian Lizaso, Unai Agirre, Jon Maia eta Andoni Egaña bertsolariak hartuko dute parte eta gai-jartzailea, berriz, Jon Mikel Mujika izango da.

laburrak

KORRI ETA XALTO

Udarako prestatu duten egitarauari jarraituta, zapatuan 18.00etatik aurrera Korri eta Xalto pailazoek "Dantzan" izenburuko ikuskizuna eskainiko dute El Corte Ingleseko terrazan (3. pisuan). Sarrera librea izango da.



HITZALDIA

Txema Ibrainek, Belen Altunarekin batera "Crecimiento personal y eneagrama" izenburuko hitzaldia emango dute datorren astelehenean, 19.30etatik 20.30etara, Elgetakalen dagoen Adhara zentroan. Sarrera librea eta doan izango da.



Gourmet
Dore
Likordegia

Ostalaritzako profesionaleri, partikularrei eta elkarte gastronomikoei saltzen espezializatuak

Bidebarrieta, 5

943 201 840 / 618 219 227

dcelicoreriasgourmet@gmail.com





Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
 <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	 <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Lambretten kontzentrazioa

Eibarko Lambretta Klubak antolatuta, asteburuan hamabigarrenez elkartuko dira motor horien zaleak, Lambretta Eibar XII. Kontzentrazioan. Bihar 09.00-etatik 11.30etara kontzentrazioan parte hartzeko joandakoei akreditazioak banatuko dizkiete Untzagan eta, bien bitartean, motoren erakusketa egingo dute Untzagan. Jarraian, 11.30ean parte-hartzaile guztiak kalejiran ibiliko dira herriko kaleetan zehar eta 12.30ak aldera San Kristobalera XII. Igoera eta pintxo-potea egingo dituzte. 13.30ean, nahi duenak Lambrettetan egiteko prestatu duten 30 kilometroko ibilbidea izango duen irteeran parte hartzeko aukera izango du eta 14.30ean elkarrekin bazkalduko dute. Arratsaldean, 16.00etan parte-hartzaile aipagarrienei sariak banatuko dizkiete eta 17.30ean bisita gidatua hasiko da. Gauean, Eibarko tabernetan txikiteoan ibili eta gero, berriz ere San Kristobalera joango dira, gauerdian hasiko den Mike Kennedy-ren kontzertua entzuter. Eta domekan, 10.30ean Lambrettetan egingo duten irteeratik bueltan, datorren urterako hitzordua ipini eta gero agurtuko dute aurtengo ekitaldia. Bien bitartean, astebururako giroten joateko, herriko hainbat dendetan Lambretta modelo ezberdinak daude ikusgai egunotan.



PAM, diskorako dirua batzen

PAM (putoamoakmatematiketaren) taldeak "Hurrengoan bai" disko berriaren ekoizpen gastuei aurre egiteko "crowdfunding" kanpaina ekin diote Verkami plataformaren bidez. Diruz lagundu nahi duenak <http://vkm.is/hurrengoanbai> helbidera sartuta izango du horretarako aukera eta, horrekin batera, berrogei eguneko diskoa "eta beste gutziazia batzuk" (Zerorajasoako Markusek edo Eibarko Anemona Studioak diseinatutako kamisetak barne) eskuratzeko moduan aurkituko ditu. Aurtengo otsaila eta apirila bitartean Legarreko musika lokaletako estudioan grabatutako diskoaren aurkezpena irailak 26an egingo dute, Ermuan, eta dirua batzeko kanpaina parte hartzen duen edonork sarrera librea izango duela aurreratu dute.



Argazki rallyko sariak banatu dituzte

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako Argazkilaritza Maiatzean egitaraua agurtzeko, maiatza amaieran egindako rallyko irabazleei sariak banatu dizkiete. Argazki digitalen atalean, lehen saria Carlos de Cos soraluzetarrak eskuratu du, bigarrena Iñaki Etxenagusia azpeitiarrak eta hirugarrena, berriz, Zallako Jose Luis Rodriguezek; atal bereko sari soziala, berriz, Fernando Retolaza eibartarrarentzat izan da. Eta zuri-beltzekoan, lehen saria Carlos Romero ondarrutarrari eman diote, bigarrena Jose Luis Irigoien eibartarrari eta hirugarrena Gemando Oregi soraluzetarrari; sari soziala Bakarne Elejalde Deporrek argazkilariak jaso du. Argazki rallyan, zuri-beltzeko atalean aurkeztutako lanak irailean Portalea tabernan ikusgai ipiniko dituzte.

The Vartools-en diskoa salgai

Aurreko astean The Vartools talde eibartarrak kaleratutako diskoa herriko hainbat tokitan salgai ipini dute: momentuz, Ez Dok, Beleko eta Jazz 8 tabernetan eta Bidebarrieta kaleko estankotan eros daiteke, 10 euroan. Bestalde, taldekideek argitu dutenez, "Vartoolfounding" delakoan diruz lagundu zutenen tiketak aipatutako estankotan (diskak eta kamisetak) eta Ez Dok-en (diskak soilik) entregatuko dituzte.



Ustekabe, sasoi betean

Uda sasoi betean murgildu dira Ustekabe fanfarreko kideak. Etxean, sanjuanetan motorrak ondo berotu eta gero, musikarekin kaleak alaitzen jairik jai dabilta: ekaina amaieran Zarautzen, sanpelaioetan parte hartu zuten eta aurreko asteburuan, berriz, Elgetara joan ziren, Ferixa Nagusixa musikarekin animatzera.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, PAULE!, hillaren 13an bost urte beteko dozuzelako, printzesa! Muxuak Ekhi eta guztion partez!



Zorionak, MIKEL, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, KEPA, gaur sei urte egitten dozuz-eta. Marrubizko muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, OLATZ, domekan bederatzita urte beteko dozuz-eta! Bederatzita muxu Izar eta guztion partez.



Zorionak, GAIZKA, Aristondo, domekan zazpi urte beteko dozuzelako. Ondo pasa, famelixaren partez.



Ongi etorri mundura, LORE, printzesa. Patxo haundi bat zure Deba eta Eibarko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANER, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Urkoren partez.



Zorionak, NAIA, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON Justel Cabezón, ekaiñaren 28xan hiru urte egin zenduazelako. Famelixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, NEREA Mallia, atzo bost urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez, zorionak Eibartik Londresera.



Zorionak, ALAITZ, gaur bi urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, OINATZ (abuztuaren 9xan bi urtetxo egingo dozuz) eta UXUE (domekan bost egingo dozuz-eta). Etxekuen partez.



Zorionak, IZARO eta IRATI, aurreko barixakuan urtetxua bete zenduen-eta. Patxo asko famelixaren partez.



Zorionak, TELMO eta AITXITXA, ekaiñaren 30ian eta uztaillaren 8xan urtiak bete dozuzelako. Famelixaren partez.

hildakoak

- Pedro Etxarte Zubizarreta. 84 urte. 2015-VII-2.
- Ana Hernandez Txurruka. 90 urte. 2015-VII-5.
- Antonia Alvarez Bereziartua. 93 urte. 2015-VII-8.
- Nieves Barrenetxea Aranburu. 98 urte. 2015-VII-8.

jaiotakoak

- Izei De la Fuente Joya. 2015-VI-28.
- Izei Azkarate Guerra. 2015-VI-30.
- Inas Bousbaa Noam. 2015-VII-2.
- Akemi Maridueña Pedrosa. 2015-VII-2.
- Youssef Doudouh. 2015-VII-3.
- Yasmin Deza El Hafidi. 2015-VII-4.
- Luken Lejardi Hernandez. 2015-VII-8.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"San Andres"

Zuzendaria: Brad Peyton



(2 ARETOAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"Los Minions"

Zuzendaria: Pierre Coffin



(ANTZOKIAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"Terminator. Genesis"

Zuzendaria: Alan Taylor



BARIXAKUA 10

AMAÑAKO JAIAK

14.15. Auzoko jubilatuetako bazkaria. Unzaga Plaza hotolean.
21.30. Bertso-afaria Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin. Caserio tabernan.



SANKRISTOBALGO JAIAK

19.00. Jaien hasierako txupinazoa.
19.10. Auzokide ezagunari omenaldia: Manu Fernandez. Kalejira, orkrestarekin.
19.30. Haurrentzako jolasak (Fray Martin Malleako parkean). Dardo txapelketa (16 urtetik beharagoentzat). Tortila, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta, auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen txosnetan.
23.00. Kontzertua: Gansos Rosas (Guns&Roses taldearen abestiak).
01.00. Metalmania (Metallica taldearen abestiak). San Kristobalen.


ZAPATUA 11

SANKRISTOBALGO JAIAK

09.00. Mountain-bike topaketa, plazoletan.
10.30. Haurrentzako marrazki lehiaketa. Partehartzaile guztientzako opariak eta sariak irabazleentzat.
11.30. Haurrentzako Moltó motorren kontzentrazio-lasterketa. Partehartzaile guztientzako opariak eta sariak irabazleentzat.
12.15. Sandia-jana musikatua, Nuria&Sofia bikotearekin. Aizarnako parkean.
12.30. Lambretta motorren XII. Igoera San Kristobalera. Hamaiketako partehartzaileentzat. Lambretta motorren erakusketa San Kristobalgo plazan.
18.00. Umeendako toka txapelketa (16 urtetik beharagoentzat).
19.00. Dardo txapelketa, helduentzat.
19.00. Kalejira, Dominguez Mariachiarekin.
21.00. Herri-afaria plazan.
22.45. Dantzaldia, Drindots taldearekin.
00.00. Mike Kennedy-ren kontzertua.
01.00. Dantzaldia, Drindots taldearekin.
03.00. Txokolate-jana. San Kristobalen.

LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA

09.00/11.30. Lambretta Eibar XII. Kontzentrazioko parte-hartzaileen akreditazioa eta motorren erakusketa Untzaga plazan.
11.30. Parte-hartzaile guztien kalejira herriko kaleetan zehar.
12.30. Lambretta motorren desfilea, San Kristobalera XII. Igoera eta pintxo-potea.
13.30. Irteera Lambretta motorrekin (30 km).
14.30. Parte-hartzaileen bazkaria.
16.00. Parte-hartzaile aipagarrienei sariak banatzea.
17.30. Bisita gidatua.
21.00. Txikiteoa, Eibarko tabernetan.
00.00. Mike Kennedy-ren kontzertua. San Kristobalen.



PAILAZOAK

18.00. Korri eta Xalto pailazoen "Dantzan" ikuskizuna. El Corte Ingleseko terrazan.

DOMEKA 12

LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA

10.30. Irteera eta agur ekitaldia.



AMAÑAKO JAIAK

11.00. Meza, Goruntz abesbatzarekin. Amañako El Salvador elizan.

SANKRISTOBALGO JAIAK

11.00. Ohe elastikoak eta tirolina, Fray Martin Malleako parkean.
12.00. Hildakoen aldeko meza.
12.30. Paella txapelketa, plazoletan.
13.00. Luntxa, plazan agertzen diren guztientzat eta trikipotea.
17.30. Freskagarri eta goxokiak umeei banatzea.
18.00. Gorixoren zezentxo eta ponyak.
19.00. Lehiaketa eta jolasetako irabazleei sariak banatzea.
19.30. Festa, DJ Arabarekin.
20.30. Errifaren zozketa.
21.30. Jaien amaierako traka. San Kristobalen.

HOROSKOPOA

ARIES

Ahultasuna, azal lehorra... bero honekin ur gehiago edan behar duzu. Ez da tontakeria, bestela sustoren bat hartuko duzu. Kontuz!

TAURUS

Heldu da ile hori mozteko ordua. Freskoago ibiliko zara eta, horrela, itxura gaurkotuagoa izango duzu. Look berriak fabore egingo dizu.

GEMINI

Zerbaiten beharra izango duzu, baina ez duzu jakingo zerena. Sentsazio txarra da hori, baina buelta ematen jakingo duzu. Baietz asmatu!

CANCER

Ahora zer eramaten duzun zaindu behar duzu. Dagoen beroarekin normala da tripetako mina izatea zuk jaten duzun denetariko horrekin.

LEO

Asko entretentuko zara hurrengo egunotan. Une dibertigarriak pasako dituzu lagunekin, azken aldirian egiten ez zenuen bezala.

VIRGO

Eztingo zara kexatu datorren astean, dena alde izango baituzu. Ondoa aprobetxatu, oraindik ez baitakizu noiz gertatuko zaizun hori berrira.

LIBRA

Freskatu zaituzte! Beroegi zabilta eta horrek ez dizu mesederik egiten. Freskatu benetan, lasaitu eta orduan dena hobeto joango zaizu.

SCORPIUS

Goizetan ez zara pertsona izango, gavetan atseden ez duzulako hartzen. Buruan duzun korapiloak ez dizu ondo lo egiten lagako.

SAGITTARIUS

Gauza asko imajina diitzaitez, zuretzat nahi duzun bizitza diseinatu, baina gauzak ez dira beti nahi bezala iriteten. Neurtu imajinazioa!

CAPRICORNIUS

Jarrera ez baduzu zuzentzen, bidean galduko zara. Azken aldirian badirudi inguruan dena aldatu dela... Ez, zu zara aldatu den bakarra.


AQUARIUS

Segundo batean gauza asko gerta daitezke: adi egon! Hala ere, zorteko zaude, gauza onak basterik ez zaizkizu etorriko-eta.

PISCIS

Horrela jarraituz gero, San Kristobalen eta Amañan monumentua egingo dizute... Jaiak gozatzeko dira, baina laga besteentzat ere!

eguraldia



erakusketak

✓ **Uztailaren 17ra arte**

50. EUSKAL JAIARI buruzko erakusketa.
Topalekuan (18.30-20.30, asteburuan ez).

✓ **Uztailaren 31ra arte**

AFE EXTREMADURAKO Argazkilaritza
Elkarteko argazki erakusketa.
Deportiboan.

JOSE LUIS IRIGOIENEZ argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan.

FERNANDO RETOLAZAREN Nepalgo argazki erakusketa. *Portalea jatetxean.*

lehiaketak

✓ **Gure Balioak**

Informazioa eta hautagaitzak aurkeztea: **Uztailaren 24ra arte**, gurebalioak.com helbidean.

✓ **Asier Errasti 16. Film Laburren Jaialdia**

Sail bi: Fikzioa eta animazioa, DVD formatuan.
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 2ra arte**,
www.planocorto.es eta www.eibar.eus helbideetan.

✓ **I. Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketa**

Lanak: Gehienez 3 argazki zuri-beltzean eta 3 koloretan, inoiz saritu gabekoak. Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 7ra arte**, Portalean.

bekak

✓ **XII. Juan San Martin Beka**

Ikerketa esparrua: Etnologia. Zenbatekoa: 9.000 euro. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: **Irailaren 1etik urriaren 9ra arte**, Pegoran.

	9		1				
8		5				4	1
		7		8			5
9		2		7	6		8
6							9
	8		2	9		3	4
	7			6		5	
1		9				6	8
					2		1

farmaziak

✓ **barixakua 10**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ **zapateria 11**

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

✓ **domeka 12**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ **astelehena 13**

EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✓ **martitzena 14**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ **eguztena 15**

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ **eguenia 16**

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ **barixakua 17**

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.50etatik 22.50etara ordu.

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40-etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.50etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.54 eta 20.54. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

6	9	8	1	2	3	7	4	5
4	5	2	9	6	7	1	8	3
3	1	7	8	5	4	6	2	9
7	4	9	5	1	8	3	6	2
8	2	6	4	3	9	5	7	1
1	3	5	2	7	6	4	9	8
9	6	4	3	8	1	2	5	7
5	7	1	6	9	2	8	3	4
2	8	3	7	4	5	9	1	6

AURREKOEN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai Albelda de Ireguako (Errioxa) erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, komuna eta trasteroa. Gas berogailu orokorra estreinatzen. Jantzitza. 2 autorentzat garaje/merenderoa (sukaldia eta fregaderoarekin). Tel. 699-017691.

1.2. Errentan

– Mutil arduratsua gela edo pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 686-257718.
– Etxebizitza alokagai udan Albelda de Ireguako (Errioxa) erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, komuna eta trasteroa. Gas berogailu orokorra estreinatzen. Jantzitza. 2 autorentzat garaje/merenderoa (sukaldia eta fregaderoarekin). Tel. 699-017691.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Bi Yamaha Virago motor salgai. 1.100 cc. Biak 2.500 eurotan. Tel. 615-729400. Igor.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai Egigurentarren kalean (20. zkia.) 3. solairuan. 15 m². Prezio onean. Tel. 678-426136.
– Taberna traspasatzen da Eibarren. Alokairua: 900 euro. Traspasoa: 6.000 euro. Tel. 630-644175. Maria.
– Garaje bikoitza salgai Eibarren, Urkizu inguruan. Tel. 617-336462. Mikel.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai San Pion. 23 m². Tel. 652-775746.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 617-966358.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Gida-baimenarekin. Tel. 689-571882.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-564679.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-841158.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da pegorak, bulegoak, elkarteak... garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-587259.
– Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko uztailen. Tel. 686-925897.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientzia eta informea. Tel. 603-743240.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 943-744033 eta 619-041821.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-610353.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko abuztuan. Tel. 638-338816.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-936943.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-639241.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 620-258708.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 682-277198.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 631-408528.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 660-213652.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 615-219514.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoa zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 617-844142.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoa zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 631-385949.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-832767.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da baserri batean etxeko lanak egiteko. Egun osorako. Tel. 688-649596.
– Langile euskalduna behar da Eibarko taberna baterako. Tel. 639-792203.
– Kamarera/o behar da uda sasoirako Eibarko taberna batean. Bidalitako curriculum-a: oferta-emploo.bar.eibar@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskara ikasi nahi duzu? Azterketetarako prestaketa: EGA, Haberen mailak, IVAP... Tel. 620-608065.
– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrik ematen diete ekainean eta uztailan HH, LH eta DBHko ikasleei. Tel. 659-024427.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 617-467779.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ekainean 30ean Eibarko neska bat eraman nuen autoz Mendaroko ospitaleetik Eibarrera eta eguzkitako betaurrekoak laga zituen ahaztuta autoan. Tel. 656-732584.
– Haur txikiaren motorra galdu genuen San Juan Txiki egunean Calbeton kalean. Berde eta zuria, Imaginarium markakoa. Tel. 676-451659.
– Neskatilaren jaka bakeroa aldatu genuen nahi barik aurreko astelehenean Txalxa-Zelaiko barraketan. Mesedez, deitu. Tel. 666-241667.
– Pampina eta txamarra arrosa (10 tailakoa) Urkizuko parkean agertu dira. Udaltzaingoa ongongo dira.

6.4. Bestelakoak

– Ondo-Nai elkarte gastronomikoak bazkide berria behar du. Interesa baldin baduzu, deitu. Tel. 670-489010.

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistikak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• **Katarata ebakuntzak**
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Ikasketa teknikak

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tef. 943206823 eta 686859023



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**